



DONOSTIAKO BIZTANLERIAREN KIROL OHITUREN TXOSTENA -2021



FITXA TEKNIKOA

Ikerketaren **lagin unibertsoa** 15 urtetik gorako **bi sexuetako** donostiarrak dira, eta 2021eko maiatzaren 24tik 2021eko ekainaren 21era bitartean elkarrizketatu dira.

Erabilitako laginketa sistema **ausazkoa** da eta adin eta genero bakoitzerako kopuru ezberdin bat ezarri da.

Irizpide horiek kontuan hartuz, guztira **402 pertsona** elkarrizketatu ditu Yaka Ikasle Elkartek Enpresak Donostia Kirola erakundearen agindupean.

Gainera, aipatzekoa da lagin errore globalaren ehunekoa 4,8 dela % 95eko konfiantza mailarako.

Kirol inkestak egiteko erabili den metodologia kalean **aurrez aurreko elkarrizketa** egitea izan da, hiriko auzoetan ausazko ibilbideak ezarriz.

ARGIBIDEAK

Donostiako kirol ohiturei buruzko bosgarren azterlana aurrekoen egituraren arabera egin da, emaitzen arteko alderaketak egin ahal izateko eta joerak ebaluatzeko.

Kirol jardueraren kontzeptua mugatzeko, Europako Kirol Gutunaren definizioa hartu da erreferentzia gisa. Horren arabera, kiroltzat hartzen da **"era guztietako jarduera fisikoak, partaidetza antolatuaren edo bestelako bidez, egoera fisikoa eta psikikoa adieraztea edo hobetzea, gizarte-harremanak garatzea edo maila guztietako lehiaketetan emaitzak lortzea helburu dutenak"**.

Halaber, Compass proiektu europarraren kirol-jardueraren definizioa hartu da erreferentziatzat: "parte-hartze antolatuaren edo librearen bidez ematen den jarduera fisikoa, forma fisikoa eta mentala adieraztea edo hobetzea, aisialdian dibertitzea, harreman berriak sortzea edo emaitza lehiakorak lortzea helburu duena".


Zehaztapen horiek kontuan hartuta, eta Compass ereduko xedapenekin bat etorritz, zenbait jarduera hartu dira kontuan, hala nola ibiltzea edo beste jarduera aerobiko batzuk, aretoko jardueratzat hartuko ditugunak.

Bestalde, Donostia Kirolaren helburu estrategikoaren idatziaren arabera, **azken hilabetean kirol jardueraren bat egin duen eta astean gutxienez 30 minutuko saio bat** egiten duen pertsona hartu da kirol-praktikatzailatzat.


Era berean, astean **gutxienez 150 minutuko** kirol-jarduera fisikoa egiten duten biztanleen ehunekoa hartu da kontuan, OMEren osasunerako jarduera fisikoari buruzko munduko gomendioen arabera.

ELKARRIZKETATUAREN PERFILA

Inkestatuen % **52 emakumeak** izan dira, eta % **48 gizonak**.




Inkestatuen adina **15** eta **80** urte bitartekoa da.



ELKARRIZKETUAREN PERFILA

Inkesta erantzun dutenen % **54,5** ez dago inolako kirol erakundetan abonatuta. % **26,3k** Kirol Txartela du, % **12,3** gimnasio pribatu batean abonatuta dago eta % **6,9** kirol klub batean.



EMAITZAK

AZKEN HILABETEAN KIROL JARDUERARIK EGIN AL DUZU ?


OROKORRA

Elkarrizketatuen **% 73,4k** adierazi du kirol jardueraren bat egin duela azken hilabetean, astean behin gutxienez, eta saio bakoitzean ordu erdi baino gehiago egin duela. Bestalde, biztanleriaren **% 26,6k** dio ez duela jarduera fisikorik edo kirol jarduerarik ohikotasunez egiten.



GENEROA

Elkarrizketatutako emakumeen **% 76,1k** kirola egiten du, eta **% 23,9k** ez. Gizonen kasuan, kirol jardueraren bat egiten duten pertsonen ehunekoa txikiagoa da; zehazki, gizonen **% 70,5k** egiten du kirola. Beraz, gizonen **% 29,5k** ez du inolako kirol jarduerarik egiten.




EMAITZAK

AZKEN HILABETEAN KIROL JARDUERARIK EGIN AL DUZU ?

ADINA

	15-20	21-34	35-49	50-64	65-80
Kirola egin du	20	60	74	80	54
Ehunekoak	83,33%	75,95%	74,75%	71,43%	61,36%

Emaitzen arabera, kirol jardueraren bat egiten duten pertsonen ehuneko handiena 15 eta 20 urte artekoa da (**% 83,33**). Aldiz, kirol gutxiago egiten dute 65 eta 80 urte bitartekoek (**% 61,36**).



DATUEN ALDERAKETA AZKEN URTEEKIN:

OROKORRA: 2021eko datuak 2014ko (**% 72,3**) eta 2017ko (**% 73,8**) datuekin alderatuz gero, ikus dezakegu hazkunde joera finkatu egin dela, balio handiekin, biztanleriaren **% 73**tik gora.

GENEROA: 2021ean kirola egiten duten emakumeen kopurua **% 7** igo da azken 7 urteetan. Gizonen kasuan, **% 6** jaitsi da 2014ko datuekin alderatuta, baina oraindik ere oso altu mantentzen da.

EMAITZAK

JARDUERA FISIKOA EGITEN DUEN BIZTANLERIAREN EHUNEKOA GUTXIENEZ 150 MINUTU ASTEAN


OROKORRA

Inkestatuen **% 61,4k** dio asteko kirol jardueran, OMEk gomendatutako 150 minutuko gutxienekoa baino gehiago egiten duela. Aurreko urteekin alderatuta, ikusten da igo egin dela gutxieneko horretara iristen den pertsonen kopurua (% 56 duela lau urte).



GENEROA

Astean kirola egiten 150 minutu baino gehiago igarotzen dituzten pertsonen ehunekoa handiagoa da emakumeen artean, **% 65**era iristen baitira; gizonen kasuan, berriz, zertxobait txikiagoa da ehunekoa (**% 61**). Aurreko azterketekin alderatzen badugu, kopuruak gora egin duela nabarmendu dezakegu emakumeen artean (% 52 2017an).



EMAITZAK

ZEIN DIRA KIROLA EZ EGITEKO ARRAZOIAK?

OROKORRA

Kirola ez egiteko arrazoen artean, hauek nabarmentzen dira: denbora falta (**% 27,3**), lesioak edo osasun falta (**% 15,1**) eta alferkeria edo motibazio falta (**% 13,7**). Deigarria da inkestatutako pertsonen **% 0,7k** soilik adierazi izana instalazio faltak eragozten diola jarduera fisikoa edo kirola egitea, eta soilik **% 2,2k** adierazi du informazio faltagatik edo garestia delako.





EMAITZAK

ZEIN DIRA KIROLA EZ EGITEKO ARRAZOIAK?

GENEROA

Bi grafikoak erreparatuz, ikus dezakegu ez dagoela alde handirik emakume nahiz gizonen artean kirola ez egitearen arrazoiei dagokienez ; bieran, **denbora falta** litzateke arrazoi nagusia, eta ehunekoa handiagoa da gizonen kasuan.

Bestalde, gizonen **% 15,8k** lanaldiaren ondorengo nekea aipatzen du beste arrazoi nagusi gisa , eta emakumeen kasuan, berriz, **% 8k** soilik aipatzen du arrazoi hori. Azkenik, nabarmentzekoa litzateke gizonen kasuan inork ez duela aipatu instalazio falta dela kirola ez egitearen arrazoi, eta emakumeen **% 4k** soilik adierazi du hala dela.



EMAITZAK

ZEIN DIRA KIROLA EZ EGITEKO ARRAZOIAK?

ADINA

KIROLA EZ EGITEAREN ARRAZOIAK	15-20	21-34	35-49	50-64	65-80
Ezjakintasunarengatik edo informaziorik ez izateagatik	0%	5,26%	12%	12,50%	1,85%
Denbora faltagatik	50,00%	57,89%	44,00%	34,38%	5,56%
Garestia delako	0%	10,53%	4%	3,13%	0%
Nagitasun, motibazio faltagarengatik	25%	26,32%	8%	15,63%	14,81%
Ez duelako gustuko, ez diolako erabilgarritasunik ikusten	25%	5,26%	12%	12,50%	3,70%
Instalazio egokirik ez izateagatik	0%	0%	0%	3,13%	1,85%
Lanaldiaren edo ikasketen ondorengo nekearengatik	0%	26,32%	8%	15,63%	1,85%
Osasun faltarengatik, lesioengatik, ezgaitasunengatik	0%	0%	20%	15,63%	22,22%
Adinarengatik	0%	0%	0%	3,13%	18,52%
Beste bat (zehaztu)	0%	15,79%	24%	18,75%	5,56%

Aurreko ataletan aipatu dugun bezala, **denbora falta** da adin tarte guztietan gehien aipatzen den arrazoi, 65 urtetik gorakoen kasuan izan ezik, horietan osasun arazoak lehen postuan baitaude.

DATUEN ALDERAKETA AZKEN URTEEKIN:

OROKORRA: 2021eko datuak 2017ko zifrekin alderatzen baditugu, oraindik ere denbora falta litzateke arrazoi nagusia, eta nekea, motibazio falta edo osasun arazoak arrazoi bezala gutxitzen direla aipatu dezakegu.


GENEROAREN ARABERA: ez dago aldaketa handirik egindako azken azterketarekin alderatuta.

EMAITZAK

ZER KIROL EDO JARDUERA FISIKO EGITEN DUZU?

OROKORRA

Donostiako biztanleen artean ohikoena oinez ibiltzea da (% 43,39), ondoren gimnasioa (% 23,05), aretoko jarduerak (% 16,27) eta igeriketa (% 14,58). Gutxien egiten direnen artean, saskibaloia (% 3,05) eta surfa (% 3,73) topa ditzakegu.





EMAITZAK

ZER KIROL EDO JARDUERA FISIKO EGITEN DUZU?

GENEROA

Emakumei dagokienez, **oinez ibiltzea** litzateke gehien burutzen den jarduera fisikoa (**% 52,2**), gizonen kasuan bezala, nahiz eta gizonezkoen ehuneko txikiagoa izan (**% 33,09**). Emakumeen artean gehien egiten den bigarren kirola aretoko jarduerak dira (**% 22,01**), eta gizonen artean **gimnasioa** ohikoagoa da (**% 27,94**). Alde handiak daude korrika, surfa edo futbola bezalako jardueretan, emakumeen jarduna askoz ere txikiagoa baita.



EMAITZAK

ZER KIROL EDO JARDUERA FISIKO EGITEN DUZU?

ADINA

Kirolarien adinak kontuan hartuz, desberdintasun esanguratsuak ikus ditzakegu. Hala, ibiltzeko jarduera orokortu egiten da adinak gora egin ahala, eta 65 urtetik gorakoen % 96k baino gehiagok maiztasunez egiten du jarduera hori. Aitzitik, futbola, saskibaloia edo surfa bezalako jarduerak presentzia handiagoa dute adin tarte gazteenetan.

Bestalde, korrika, gimnasioa edo aretoko jarduerak dira nagusi 21 eta 64 urte bitartekoen artean.

	15-20	21-34	35-49	50-64	65-80
Oinez ibiltzea	10%	11,67%	22,97%	62,50%	96,30%
Korrika egitea	15%	16,67%	21,62%	17,50%	0,00%
Aretoko jarduerak (ikastaroak)	5%	16,67%	16,22%	22,50%	12,96%
Gimnasioa	30%	36,67%	33,78%	15,00%	5,56%
Igeriketa	10%	18,33%	18,92%	3,93%	9,26%
Bizikleta	5%	11,67%	8,11%	11,25%	14,81%
Futbola	10%	6,67%	2,70%	0,00%	0,00%
Saskibaloia	20%	8,33%	0,00%	0,00%	0,00%
Mendia	0%	15,00%	9,46%	7,50%	7,41%
Surfa	15%	6,67%	5,41%	0,00%	0,00%
Beste bat	20%	15,00%	18,92%	13,75%	11,11%

DATUEN ALDERAKETAK AZKEN ESTUDIOAREKIN:

OROKORRA:

2017an egindako Donostiako kirol ohiturei buruzko aurreko txostenarekin alderatuta, kirol-jarduera neurri batean aldatu egin dela ikus dezakegu. Alde batetik, **gehien praktikatzen den kirola** aire librean **oinetz** ibiltzea da oraindik ere, 2021ean **% 13**ko igoera izanez. Aurten, **gimnasioa** da bigarren kirol jarduera ohikoena, **% 10**eko igoerarekin. **Aretoko jarduerari** bigarren postua kendu zaie, **% 9** jaitsi baitira. Gainerako jarduerak egonkor mantendu dira.

GENEROAREN ARABERA:

Generoari dagokionez, **emakumeek** gehien egiten duten kirola **oinetz** ibiltzea da, **% 14** igo baita 2017arekin alderatuta. Bestalde, **aretoko jarduerak** dira emakumeen artean gehien egiten diren bigarren kirol jarduerak; dena den, 2021ean ia **% 14** murriztu da. Era berean, igeriketan aritzen diren emakumeen kopurua **% 4** igo da, gimnasioa (**% 5,54**) eta korrika egitea (**% 3,42**) bezala.


Gizonei dagokienez, emakumeekin bezala **oinetz** ibiltzea da gehien gauzatzen den jarduera. Duela 4 urte gizonek gehien egiten zuten kirola korrika egitea zen, orain, 2021ean **% 6,71** jaitsi da eta oinez ibiltzeak, berriz, **% 16,87** egin du gora. Azkenik, aipatzekoa da gimnasia orain 4 urte baino **% 10,23** gizon gehiago joaten direla.

EMAITZAK

KIROL JARDUERAREN MAIZTASUNA



OROKORRA

Azken hilabetean kirol jardueraren bat egin dutenen artean **% 44k** adierazi du **astean 2/3 aldiz** egiten duela kirola, eta **% 28k** adierazi du **egunero** egiten duela kirola edo jarduera fisikoa.



GENEROA

Gizonen zein emakumeen kasuan, maiztasun orokorra astean 2/3 egunekoa da, baina kopuru hori handiagoa da gizonen artean. Hala ere, emakumeek diote asteke egun guztietan egiten dutela kirola gizonek baino ehuneko handiagoan.



EMAITZAK

KIROL JARDUERAREN MAIZTASUNA

ADINA

15 urtetik 64 urtera arte, astean 2/3 egunetan kirola egiteko aukera nagusitzen da; 65 urtetik gorakoan artean, berriz, asteko egun guztietan jarduera fisikoa egiteko aukera nagusitzen da. Era berean, nabarmendu dezakegu 15-20 urteko gazteen artean **% 8k** soilik egiten duela kirola egunero.


	15-20	21-34	35-49	50-64	65-80
Astean behin	13%	22%	19%	16%	6%
Astean 2/3	54%	49%	48%	42%	29%
Astean 4/5	25%	16%	12%	8%	22%
Astean 6/7	28%	12%	21%	35%	54%

EMAITZAK

SAIOAREN IRAUPENA



OROKORRA

Donostiako kirolarien artean ohikoena kirol saio bakoitzean **ordu erdi eta ordubete artean** aritzea da (**% 41,2**), eta, ondoren, **ordubete eta bi orduko praktikak egitea** (**% 39,2**). Ezohikoena **ordu erdi baino gutxiago** aritzea da (**% 2,9**).



GENEROA

Bi sexuetakoko datuak alderatuz gero, esan dezakegu % 10eko aldea dagoela **ordu erditik ordubetera** bitartean kirolaren praktikari dagokionez; izan ere, emakumeen **% 46k** dio iraupen hori gehiago praktikatzeko duela, eta gizonen kasuan, berriz, **% 36k**. Aitzitik, aldea handiagoa da **saioan bi ordu baino gehiago** ematen dituzten pertsonen ehunekoa; izan ere, gizonen kasuan **% 22** da, eta emakumeen kasuan, berriz, **% 12**. Ez dago alde handirik ordu erdi baino gutxiagoko eta ordu bat eta bi ordu arteko kasuetan.



EMAITZAK

SAIOAREN IRAUPENA

ADINA

15 eta 49 urte bitarteko pertsonen % 62 inguruk ordubete baino gehiago ematen dute kirola egiteko saio bakoitzean. 65 urtetik gorakoen artean dago bi ordutik gorako kirol-saioen ehuneko handiena, adin horretako pertsona guztien % 25.

Bestalde, 50 eta 64 urte bitarteko adin tartean, erdiak baino gehiagok (% 52) ordubete edo gutxiagoko kirol saioak egiten dituzte.


	15-20	21-34	35-49	50-64	65-80
Ordu erdi baino gutxiago	0%	2%	2%	3%	6%
Ordu erdi eta ordubete artean	41%	36%	37%	49%	37%
Ordu bat eta bi ordu artean	59%	43%	45%	33%	32%
Bi ordu baino gehiago	0%	19%	16%	16%	25%

EMAITZAK

KIROLA EGITEN DEN ASTEKO EGUN OHIKOENAK



OROKORRA

Inkesta erantzun duten pertsonen % 52k adierazi dute **astelehenetik ostiralera bitartean** egiten dituztela kirol jarduera fisikoak; % 8k, berriz, **igande eta jaiegunetan**, eta % 5k soilik **larunbatetan**. Bestalde, inkestatuen % 35k ez du lehentasunik asteko egunei dagokienez.



GENEROA

Gizonen zein emakumeek kirol gehiago egiten dute **asteaz zehar**, dena den, ikus dezakegu emakumeen kopurua (% 55) gizonena (% 50) baino pixka bat handiagoa dela. Bestalde, **asteburuetan** kirola egiten duten emakumeen eta gizonen ehunekoak **antzekoak** dira, baina emakumeen kasuan apur bat txikiagoak .



EMAITZAK

KIROLA EGITEN DEN ASTEKO EGUN OHIKOENAK

ADINA

Oro har, **astelehenetik ostiralera** bitarteko aukera da nagusi adin tarte guztietan, batez ere **15-20 urteko** gazteen kasuan, horien **% 78k** egun horietan kirola egiten dutela baitio. Bestalde, **21 eta 34** urte bitarteko pertsonak dira beste adinekin alderatuz **larunbatetan** kirola neurri handiagoan egiten dutenak (**% 10**), eta **igande eta jaiegunetako aukera** handiagoa da (**% 11**) **50 eta 64 urte bitartekoen artean**.

Azkenik, **65 urtetik gorako** pertsonen erdiek baino gehiagok diote **edozein egunetan** egiten dutela kirola, lehentasun argirik erakutsi gabe.


	15-20	21-34	35-49	50-64	65-80
Astelehenetik ostiralera	78%	61%	61%	44%	40%
Larunbatetan	4%	10%	3%	3%	5%
Igande eta jaiegunetan	0%	9%	9%	11%	4%
Edozein egunetan	18%	20%	27%	42%	51%

EMAITZAK

KIROLA EDO JARDUERA FISIKOA EGITEN DEN LEKUA

OROKORRA JARDUERA/EKINTZA BAKOITZEKO

Egindako kirol jarduerak aztertzen baditugu, ikusiko dugu gehienak **aire librean** egiten direla (% 54,5), eta % 18,2k, berriz, **udaleko kirol instalazioetan**. Bestalde, jardueren % 10,7 gimnasio pribatuetan egiten dira, eta % 8,3 etxean. Azkenik, % 5,7 kirol klubetan instalazioetan egiten dira, eta % 2,6 beste leku batzuetan (lanean...).




EMAITZAK

KIROLA EDO JARDUERA FISIKOA EGITEN DEN LEKUA

OROKORRA PERTSONAKO

Kasu honetan, elkarriketatuen **% 84,41k** adierazi du kirola **aire librean** egiten duela, eta **% 28,14k udal kirol instalazioetan**. Kopuru txikiagoan aurkitu ditzakegu **gimnasio pribatuak** (% 16,61), **etxea** (% 12,88) eta **kirol klubetan instalazioak** (% 8,80).

Kontuan izan behar da inkestatutako pertsonak kirol bat baino gehiago egin dezaketela, eta, beraz, ehunekoa % 100 baino handiagoa dela





EMAITZAK

KIROLA EDO JARDUERA FISIKOA EGITEN DEN LEKUA

GENEROA

Gizonen zein emakumeen artean **kirola aire librean egitea** da aukerarik gustukoena (% 80tik gora). Bestalde, gizonek neurri handiagoan erabiltzen dituzte **udaleko kirol instalazioak** (gizonen % 33k eta emakumeen % 24k).

Azkenik, nabarmendu behar da emakumeen artean ohikoagoa dela **kirola etxean egitea** gizonen artean baino: **emakumeen % 16,35** eta **gizonen % 8,82**.



EMAITZAK

KIROLA EDO JARDUERA FISIKOA EGITEN DEN LEKUA

ADINA

Adin tarte guztietan, **% 50k** baino gehiagok adierazi du nahiago duela kirola aire librean egin, **batez ere 50 urtetik aurrera**, egindako jardueren **% 100etik gorako** zifrekin (hau da, jarduera bat baino gehiago egiten dute aire librean).

Era berean, zifrak nahiko altuak dira **udal kirol instalazioei** dagokienez (**>% 35**), baina 50 urtetik aurrera dezente jaisten da toki horietan kirola egiten duten pertsonen kopurua. Bestalde, gazteenak dira kirol klubetara gehien joaten direnak (% 25), eta gimnasio pribatuaren aukera handiagoa da 21 eta 34 urte bitartekoen artean.

Azkenik, jarduera fisikoa etxean egiteko aukera handiagoa da 35 urtetik aurrera.

	15-20	21-34	35-49	50-64	65-80
Aire librean	50%	73%	72%	105%	107%
Udal kirol instalazioetan	35%	40%	41%	23%	7%
Kirol klubetan	25%	12%	4%	8%	9%
Gimnasio pribatuan	20%	25%	18%	14%	11%
Etxean	10%	7%	18%	13%	17%
Beste bat	0%	7%	4%	5%	2%

DATUEN ALDERAKETA AZKEN ESTUDIOAREKIN:

OROKORRA

Jarduera bakoitzeko kirola egiteko leku ohikoenen datuak alderatzen baditugu, 2021ean **% 26,1 gehiagok** egiten du kirola **aire librean** 2017arekin alderatuta. Nabarmentzekoa litzateke, halaber, 2021ean kirol instalazioetako praktikak **% 7,86** egin duela behera.


Bestalde, beste datu deigarri bat **etxean kirola** egiten duten pertsonen ehunekoa da (**% 13**), duela lau urte aukera hori ia ez baitzen agertzen inkestatuen erantzunetan.

EMAITZAK

URTEKO ZEIN SASOITAN EGITEN DA KIROLA OHIKOAGO?



OROKORRA

Donostiako herritarren artean **ohikoena kirola urte osoan egitea** da, % **84,4k** urteko edozein sasoiatan egiten baitu kirola. Hala ere, % **8,6k udan** soilik burutzen du, batez ere eskola urtean denborarik ez dagoelako. Gainerako % **6,6k** uda ez den **beste garai batzuetan** gauzatzen du jarduera fisikoa.



GENEROA

Gizonek zein emakumeek urte osoan zehar egiten dute kirola, eta gizonei dagokienez zertxobait handiagoa da ehunekoa. Azpimarratzekoa da grafikoaren arteko aldea: udan kirola egiten duten emakumeen kopurua gizonena baino txikiagoa da (% **11 gizonen** kasuan eta % **6,3 emakumeen** kasuan). Halaber, emakumeek gizonek baino kirol gehiago egiten dute beste garai batzuetan .



EMAITZAK

URTEKO ZEIN SASOITAN EGITEN DA KIROLA OHIKOAGO?

ADINA

Arestian aipatu bezala, ohikoena **urte osoan kirola egitea** da. Hori **% 70etik** gorako ehunekoekin islatzen da, are gehiago, **% 90era** iristen dira **35-49** eta **65-80** bitarteko pertsonen kasuan.

Udan soilik kirola egiten duten pertsonen kasuan, ikus dezakegu altuagoa dela adin gazteenetan.


	15-20	21-34	35-49	50-64	65-80
Urte guztian zehar	74%	72%	91%	88%	92%
Udaran	21%	17%	4%	5%	5%
Beste garaietan	5%	12%	5%	7%	3%

EMAITZAK

KIROLA EGITEAREN ARRAZOIAK

OROKORRA

Kirola egiteko arrazoen artean honako hauek nabarmentzen dira: sasoian jarraitzeko nahia (% 59,32), erlaxatzeko gogoia (% 48,47), dibertsioa (% 44,75) eta osasun arrazoia (% 41,02). Bestalde, lagunekin denbora igarotzea (% 15,93), norbera gaintzeko nahia izatea (% 6,10) edo seme-alabei laguntzea (% 0,34) aurkitu ditzakegu kopuru txikiagoan.





EMAITZAK

KIROLA EGITEAREN ARRAZOIAK

GENEROA

Emaitzen arabera, emakumeen artean arrazoi nagusia **forman egotea/ linea mantentzea** litzateke (% 36), eta, ondoren, **osasun arazoak** (% 28).

Aldiz, gizonak sasoian egoteko helburuaz gain (% 54), lasaitzeko (% 47) edo ondo pasatzeko kirola egiten dutela ziurtatzen dute (% 51); arrazoi horiek bigarren mailako lekua dute emakumeen artean (are gehiago, emakumeen artean ez da inkesta bakar bat ere jaso "erlaxatzea" jarduera fisikoa egitera bultzatzen dituen arrazoietakoko bat dela adierazten duenik).



EMAITZAK

KIROLA EGITEAREN ARRAZOIAK

ADINA

15 eta 20 urte bitarteko gazteek kirola egiteko **arrazoi nagusiak dibertsioa (% 85)** eta **lagunekin egotea (% 55)** dira; gainditzeko nahia ez du inork aipatu adin tarte honetan . Gazteak dira errendimendua hobetzeko helburuarekin kirola egiten dutela gehien adierazten dutenak, baina kopuru baxuan (**% 10**).

21 eta 34 urte bitarteko pertsonen kasuan, **sasoian egotea** eta **lasaitzea** lirateke lehenesten dituzten arrazoiak.

35 eta 49 urte bitarteko pertsonak aurreko adin tartearen antzeko arrazoiengatik egiten dute kirola, eta **50 eta 64** urte bitartekoen artean **osasun arazoak** arrazoi nagusi bezala nabarmentzen dira.

65 urtetik gorakoen artean, kirola egiteko arrazoi nagusia **osasun arazoak** dira (**% 70**), baina garrantzitsuak dira, halaber, sasoian egotea eta erlaxatzea kirolerako motibazio gisa aipatzen duten pertsonen ehunekoak.

	15-20	21-34	35-49	50-64	65-80
Erlaxatzeko	40%	52%	58%	44%	48%
Ondo pasatzeko	85%	52%	47%	38%	35%
Lagunekin denbora igarotzeko	55%	20%	9%	13%	13%
Seme-alabei laguntzeko	0%	0%	0%	0%	2%
Gainditzeko nahiarengatik	0%	7%	7%	5%	9%
Forman egoteko/linea mantentzeko	45%	62%	62%	65%	57%
Medikuak aginduta edo osasun arrazoiengatik	15%	25%	32%	51%	70%
Lehiatzeko, errendimendu helburuekin	10%	3%	1%	1%	2%
Beste bat	0%	3%	8%	6%	4%

EMAITZAK

PARTE HARTU AL DUZU AZKEN BI URTEETAN DONOSTIAN EGINDAKO KIROL PROBA OSPETSU EDO EZ FEDERATUREN BATEAN?


OROKORRA

% 91,0k adierazi du azken bi urteetan ez duela parte hartu Donostiako kirol proba ospetsu edo ez federatuetan, eta **% 9k** soilik adierazi du parte hartu duela.



GENEROA

Generoari dagokionez, ikus dezakegu ez dagoela alde handirik bi sexuen artean. Kirol probaren batean parte hartu dutenen artean aipatzekoa litzateke gizonen ehunekoa **% 9,8**koa dela, eta emakumeena, berriz, **% 1,7 txikiagoa**. Parte hartu ez dutenen artean **% 1,7**ko aldea dago bi generoen artean.



EMAITZAK

PARTE HARTU AL DUZU AZKEN BI URTEETAN DONOSTIAN EGINDAKO KIROL PROBA OSPETSU EDO EZ FEDERATUREN BATEAN?

ADINA

Adin tarte bakoitzeko datuak alderatuz gero, **gazteenak** dira proba gehienetan parte hartzen dutenak, **% 13ko** ehunekoekin. Era berean, nabarmentzekoa da adin guztietan parte hartzen ez duten pertsonen kopurua oso handia dela, beti **% 86** gainditzen baitute.

	15-20	21-34	35-49	50-64	65-80
BAI (%)	13%	14%	10%	7%	2%
EZ (%)	88%	86%	90%	93%	98%

Behobia (% 30,56) eta **Lilatoia** (% 27,78) izan dira jende kopuru altueneko probak. **San Silvestre** ere aipatzekoa litzateke, **% 5,56ko** ehunekoarekin.

DATUEN ALDERAKETA AZKEN URTEEKIN:

Hirian antolatutako kirol proba ospetsuren batean parte hartu dutela dioten pertsonen ehunekoa **% 4 jaitsi da azken 4 urteetan**.

EMAITZAK


ONDORIO OROKORRAK

- Kirola ohikotasunez egiten duten Donostiako herritarren ehunekoak oso maila altuan jarraitzen du, % 73tik gora. Horrek esan nahi du Euskadiko batez bestekoa baino 8 puntu gehiago (Eusko Jaurlaritzaren Azterlana - 2021) eta Estatuko batez bestekoa baino 13 puntu gehiago (Espainiako Kirol Ohituren Inkesta -2020) aurkezten dituela Donostiak. Argitaratutako kirolaren azken Eurobarometroaren datuekin alderatuz gero, Donostia Europako batez bestekoa baino 19 puntu gorago dago, biztanleria aktiboaren ehuneko handiena erregistratzen den Europako iparraldeko herrialdeek duten mailatik oso gertu.
- Garrantzitsua da azpimarratzea, lehen aldiz, jarduera fisikoa edo kirola ohikotasunez egiten duten emakumeen ehunekoak gizonena baino handiagoa dela, gizonenak zertxobait behera egin baitu aurreko ikerketekin alderatuz. Horren arrazoia, eguneroko ohituretan kirola egiteko helburuarekin ibiltzea jarduera fisiko bezala txertatu duten emakumeen gorakada handia izan daiteke.
- Halaber, astean gutxienez 150 minutuz (OMEren gomendioaren arabera) jarduera fisikoa egiten duten pertsonen adierazleak gora egin du. 2017an ehuneko hori biztanleriaren % 56 zen, eta 2021ean, berriz, % 61. Gizonen kasuan, joera antzekoa da, baina emakumeen artean nabarmen igo da (14 puntu)
- Egindako jardueri dagokienez, oinez ibiltzea da ohikoena (% 43), batez ere emakumeen artean (kirola egiten duten emakumeen % 52,20k oinez ibiltzea du ekintzarik gogokoenen artean). Jarduera horrek 13 puntuko hazkundera izan du 2017tik.
- Hazkunde handia izan duen beste aktibitate bat gimnasia joatearena izan da (kardio baskularra, funtzionala, muskulazioa...); bigarren lekuan dago, eta 2017an % 13 izatetik 2021ean % 23 izatera igaro da. Igoera hori handiagoa da gizonen artean (10 puntu igo da), baina esanguratsua da emakumeen artean ere (% 13tik % 19ra igaro da). Hirugarren postua aretoko jarduerak betetzen dute (ziklo indoor, pilates eta antzeko ikastaroak), batez ere emakumeen kasuan, egindako jarduera guztien % 22 baitira.
- Azkenik, jardueri dagokienez, nabarmentzekoa da igeriketak eta runningak gora egin dutela emakumeen artean, nahiz eta balantze orokorrean % 14an gelditu den korrika egiteko jarduera, praktika horren beherakada moderatuaren ondorioz (7 puntu gutxiago), ziurrenik azken urtean hirian lasterketarik egon ez delako.

EMAITZAK

ONDORIO OROKORRAK

- Egindako saioen maiztasuna eta iraupena aztertuz gero, ondoriozta daiteke gizonek emakumeek baino denbora gehiagoz egiten dutela kirola. Kirola egiten duten gizonen % 42k astean 2/3 egiten du gutxienez, eta emakumeen artean ehuneko hori % 38koa da. Saioaren iraupenari dagokionez, gizonen % 62k ordubete baino gehiago ematen du saio bakoitzean, eta emakumeen kasuan ehuneko hori % 50ekoa da.
- Kirola egiten den asteko egunei dagokionez, emaitzak aurreko azterlanen antzekoak dira, lehentasunez astean zehar egiten delako kirola, astelehenetik ostiralera (% 52) hain zuzen ere. Azkenik, ez da ikusten kirol jardueren praktika urtaroen arabera denik; izan ere, kirola egiten dutenen % 85k urte osoan egiten du.
- Kirola egiten den tokiei erreparatuz, aldaketa nabarmena ikus dezakegu aurreko azterketekin alderatuta. Aire librean gauzatzen den kirol jarduera nabarmen igo da, kirola egiten duten pertsonen % 59tik % 84ra, gutxienez, aire libreko jarduera batean. Kirol instalazioetan, berriz, % 36tik % 28ra jaitsi da. Esanguratsua da, halaber, etxean kirola egiten duten pertsonen gorakada (% 8,3), 2017ko inkestan kasu hori ez baitzen erregistratu.
- Kirola egiteko motibazioen artean, kirolariek hiru aipatzen dituzte gehienbat: erlaxatzea/dibertitzea, sasoiaren egotea eta osasun arrazoiengatik . Dena den, alde handiak daude gizonen eta emakumeen artean, izan ere, gizonen kasuan, oso garrantzitsua da lasaitzeko/dibertitzeko arrazoia, eta oso txikia emakumeen artean. Emakume gehienek forman egotea/linea mantentzea nabarmentzen dute.
- Azkenik, kirolik egiten ez dutenen artean, denborarik eza eta nagikeria edo nekea aipatzen dira arrazoi nagusi. Nabarmentzekoa da % 0,7k soilik esatea kirol instalazio egokirik ez izatea dela kirola ez egiteko arrazoia.



BIGARREN ATALA

UDALAREN KIROL ESKAINTZAREN BALORAZIOA


EMAITZAK

UDALAREN KIROL ESKAINTZA EZAGUTZEN AL DUZU?

OROKORRA

Udalaren kirol eskaintzari dagokionez, inkestatuen % **81k** esan du **ezagutzen** duela, 2017an baino 10 puntu gehiago. Ehunekorik altuena **Kirol Txartelak** lortzen du, % **72,89k** **ezagutzen** baitu. **Udaleko kirol instalazioei** dagokienez % **62,19k** **ezagutzen** ditu udaleko **kirol ekipamenduak**.

Ekintzen kanpainak ez dira hain ezagunak herritarren artean, dena den, **Kirol Ekintzak kanpaina** % **40**ra iristen da eta **Uda kanpaina** % **34,83**ra





EMAITZAK

UDALAREN KIROL ESKAINTZA EZAGUTZEN AL DUZU?

GENEROA

Genero bakoitzari buruzko datuak arestian aipatutakoen antzekoak dira, ezagunena instalazioetarako abonua (kirol txartela) izanez eta gutxien ezagutzen dena udako ikastaroak. Emakumeen kasuan datuak zertxobait altuagoak dira, izan ere, udalaren kirol eskaintza hobeto ezagutzen dela erakusten dute datuek, bereziki ekintzen kanpainak.



EMAITZAK

UDALAREN KIROL ESKAINTZA EZAGUTZEN AL DUZU?

ADINA

Datuak adin tarte bakoitzeko alderatuz gero, lehen aipatutako adibideen antzeko ondorioak atara ditzakegu. 15 eta 20 urte bitarteko pertsonen kasuan izan ezik, horiek gehiago ezagutzen baitute Uda kanpaina Kirol Ekintzak kanpaina baino, gainerako tarteek lehen aipatutako ordenari jarraitzen diote.

	15-20	21-34	35-49	50-64	65-80
Kirol Txartela	71%	76%	74%	77%	65%
Kirol Ekintzak kanpaina	21%	43%	46%	43%	31%
Uda kanpaina	33%	33%	42%	38%	24%
Udal kirol instalazioak	54%	65%	64%	70%	51%

EMAITZAK

NOLA EZAGUTU DUZU UDALAREN KIROL ESKAINTZA ?

OROKORRA

Udalaren kirol eskaintza ezagutzeko modurik ohikoena **familia edo ezagunen** bidez da, elkarriketatuen **% 54,5k** hala ezagutu duela adierazi duelako. Bestalde, gainerako **% 45,5k** Donostia Kirolaren komunikazio **kanpainen** bidez ezagutu du eskaintza, hots, **iragarkien** bidez (**% 26,5**), **web orriaren** bidez (**% 12,4**) eta **sare sozialen** bidez (**% 6,6**).

Aurreko azterlanei dagokienez, senide edo ezagunen bitartez ezagutu izanaren kopuruak gora egin du, baita iragarkien bidezko moduak ere.





EMAITZAK

NOLA EZAGUTU DUZU UDALAREN KIROL ESKAINTZA ?

GENEROA

Kasu honetan oso alde txikia dago gizonen eta emakumeen artean. Biak bat datoz **udal eskaintza ezagutzeko biderik erabiliena senideak edo ezagunak** direla, eta **gutxien** erabiltzen direnak, berriz, **sare sozialak**.



EMAITZAK

NOLA EZAGUTU DUZU UDALAREN KIROL ESKAINTZA ?

ADINA

Adin tarteen arabera datuei dagokienez **gehien erabiltzen den metodoa**, oro har, **senideak edo ezagunak** dira, **% 50 eta % 72** bitarteko datuekin.

Era berean, bat datoz lehen aipatutako ordena orokorrarekin, **sare sozialak gutxien** erabiltzen direnak izanez. Dena den, adin tarte jakin batzuetan sare sozialen kopuruak Donostia Kirolaren web orriaren kopuruekin parekatzen dira.

	15-20	21-34	35-49	50-64	65-80
Iragarkien bidez: prentsan, irratian, autobusean...	17%	18%	30%	25%	38%
Web orriaren bitartez	6%	15%	11%	18%	3%
Sare sozialen bitartez	6%	7%	11%	5%	3%
Ezagun edo senideen bitartez	72%	60%	50%	52%	55%

EMAITZAK

NOLA BALORATUKO ZENUKE UDALEKO KIROL INSTALAZIOEN KALITATEA, KANTITATEA ETA ANIZTASUNA?

Udaleko kirol instalazioei ematen zaien balorazio orokorra **7,2**koa da. Datu positiboa da, nahiko antzekoa bi generoetan, eta hamartar batzuetan soilik aldatzen da adin tarte batetik bestera.

	Orokorra	Emakumeak	Gizonak	15-20	21-34	35-49	50-64	65-80
INSTALAZIOEN BALORAZIOA	7,2	7,2	7,1	7,0	7,2	7,3	7,0	7,3

HIRIAN UDAL KIROL INSTALAZIO GEHIAGO BEHAR DIRELA USTE DUZU?

OROKORRA

% 61,7aren aburuz **ez dira instalazio gehiago behar hirian**, hau da, jadanik daudenak nahikoak dira. Bestalde, **% 38,3k** uste du gehiago behar direla. Azken talde horren beharrak hurrengo atalean jasoko dira, eta bertan zehaztuko da zer instalazio ezarri nahi dituzten.




EMAITZAK

HIRIAN UDAL KIROL INSTALAZIO GEHIAGO BEHAR DIRELA USTE DUZU?

GENEROA

Udal instalazio berrien beharrari buruzko datuak nahiko antzekoak dira gizonen eta emakumeen artean. Instalazio gehiagoren beharrik ez dela uste duten gizonen ehunekoa emakumeena baino pixka bat handiagoa da; hala ere, bi generoetan garbi ikus daiteke ezezkoen kopurua baiezkoena baino handiagoa dela.



EMAITZAK

HIRIAN UDAL KIROL INSTALAZIO GEHIAGO BEHAR DIRELA USTE DUZU?

ADINA

Adin tarteei buruzko ehunekoei dagokienez, gehienak bat datoz **udal kirol instalazio gehiago behar ez direla**. Hala ere, **21 eta 34 urte bitarteko tartean**, ehunekoa alderantzizkoa da, pertsona gehiagok uste baitu **instalazio berri gehiago** egin behar direla.

	15-20	21-34	35-49	50-64	65-80
BAI	33%	53%	44%	35%	32%
EZ	67%	47%	56%	65%	68%

Azken azterketei dagokienez, hirian kirol instalazio gehiago behar direla irizten dutenen ehunekoak gora egiten jarraitzen du nabarmen. Zehazki, 2014an ehuneko hori % 10 ingurukoa zen, 2017ko inkestan % 23ra igo zen eta 2021ekoan, berriz, % 38ra.


EMAITZAK

HIRIAN KIROL INSTALAZIO GEHIAGO BEHAR DIRELA USTE BADUZU, ADIERAZI ZEIN

OROKORRA

Egungo instalazioak eskariari erantzuteko nahikoak ez direla uste dutenen artean, aire libreko instalazioak nabarmentzen dira, guztien % 35,7rekin. Gimnasioak (% 33,1) eta igerilekuak (% 31,1) oso gertu daude.

Herritarrek gutxien eskatzen dituzten kirol instalazio berriak kiroldegiko pistak eta futbol zelaiak dira (% 5,2).





EMAITZAK

HIRIAN KIROL INSTALAZIO GEHIAGO BEHAR DIRELA USTE BADUZU, ADIERAZI ZEIN

GENEROA

Gizonak eta emakumeak **bat datoz aire libreko instalazio** eta **gimnasio gehiago behar direla** esatean. **Emakumeen** kasuan, **% 41,18k** beharrezkotzat jotzen du **igerileku** berriak egitea, eta **gizonen** kasuan, berriz, **% 18,84k**.

Futbol zelaiei eta **kiroldegiko** pistei dagokienez alderantziz gertatzen da: emakumeek ez dituzte kirol espazio horiek gizonen bezain beharrezkotzat jotzen.



EMAITZAK

HIRIAN KIROL INSTALAZIO GEHIAGO BEHAR DIRELA USTE BADUZU, ADIERAZI ZEIN

ADINA

15-20 urte bitartean **gimnasioak** eskatzen dituzte gehien (% **63**) eta **65 urtetik gorako**en artean, berriz, **aire libreko instalazioek** hartzen dute garrantzi handiagoa (% **50**).

Igerilekuak gehiago eskatzen dira **50 eta 64 urte** bitarteko adin tartean.

Beste batzuen atalean, **21 eta 49** urte bitarteko artean, kopuru handienekin **skateparkak, kalistenia** edo **instalazio berezien** eskaerak nabarmentzen dira.


Azkenik, **kiroldegietako pistak** eta **futbol zelaiak** gazteenek eskatzen dituzte.

	15-20	21-34	35-49	50-64	65-80
Gimnasioa	63%	32%	32%	39%	19%
Igerilekuak	38%	24%	34%	42%	19%
Kanpoko igerilekuak	13%	10%	5%	16%	12%
Futbol zelaiak	13%	7%	7%	0%	4%
Kiroldegiko pistak	13%	0%	5%	0%	4%
Aire libreko instalazioak	13%	39%	29%	34%	50%
Beste bat	13%	20%	29%	11%	12%

EMAITZAK


ZER BALORAZIO EMANGO ZENIOKE DONOSTIA KIROLAK ANTOLATUTAKO IKASTAROEI?

Donostia Kirolak antolatutako ikastaro, ekintzei ematen zaien balorazio orokorra **7,3**koa da. Nahiko datu zuzena da, bi generoetan antzekoa, eta hamartar batzuetan soilik aldatzen da adin tarte batetik bestera.



ZURE USTEZ, KIROL TXARTELAREN ETA DONOSTIA KIROLAK ESKAINTZEN DITUEN KIROL IKASTAROEN PREZIOA EGOKIA AL DA ZERBITZUEN KALITATERAKO?


Kirol eskaintzaren prezioari ematen zaion balorazio orokorra **6,9**koa da. Urteetan zehar, Kirol txartelaren eta ikastaroen prezioaren balorazioa eskaintutako zerbitzuei dagokionez hobetuz joan da.



EMAITZAK


ZER NOTA JARRIKO ZENIOKE DONOSTIA KIROLAK KOORDINATZEN DUEN DONOSTIAKO ESKOLA KIROLEKO PROGRAMAREN ANTOLAKETARI?

Eskola kirolaren antolaketari ematen zaion balorazio orokorra **7,10**ekoa da. Inkestatuen arabera, zuzena da eskola kirolaren kudeaketa eta antolaketa.



ZURE USTEZ DONOSTIA KIROLAK HIRIAN KIROL EKITALDIAK ANTOLATU, BABESU ETA SUSTATZEN DITU?


Donostia Kirolak kirol ekitaldiak antolatzeari, babesteari eta sustatzeari ematen zaion balorazio orokorra **7**koa da, eta emaitza horrek goranzko joera txikia duela ikus dezakegu.



EMAITZAK

NOLA BALORATZEN DUZU DONOSTIA KIROLAK HIRIKO KIROL KLUBEI EMATEN DIEN LAGUNTZA?

Donostia Kirolak hiriko kirol klubei ematen dien babesari atxikitzen zaion balorazio orokorra **6,7**koa da. Herritarrek gai horri buruz duten pertzepzioa egonkorra da azken urteotan.




NOLA BALORATZEN DUZU DONOSTIA KIROLAK DONOSTIAKO EMAKUMEEN KIROLARI EMATEN DION LAGUNTZA?

Emakumeen kirolaren babesari ematen zaion balorazio orokorra **6,3** da. Inkestatuen arabera, pixkanaka-pixkanaka ikusgarritasuna ematen ari zaio kolektiboari, dena den, egindako lana ez da nahikoa eta beraz, positibotzat joko lukete ikusgarritasun handiagoa izatea.

EMAITZAK

DONOSTIA KIROLAK EGITEN DUEN GIZARTE LANAREN BALORAZIOA

Gizarte lanari ematen zaion balorazio orokorra **7,1**ekoa da. Inkestatuen arabera, Donostia Kirolak egiten duen lan soziala positiboa da.



ZURE USTEZ, DONOSTIA KIROLA ERAKUNDE BERRITZAILEA DA KUDEAKETARI, INSTALAZIOEI ETA ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUEI DAGOKIENEZ?

Donostia Kirolak erakunde berritzaile gisa duen balorazio orokorra **6,5**ekoa da. Elkarrizketatuen iritziz, oraindik ibilbide luzea du egiteko Donostia Kirolak bere instalazio eta zerbitzuen berrikuntzazatik ezaguna izan dadin.

